

Euskal-aditzaz zenbait gogoeta

FONTES-en 12.gn alean Otxoa-Arinen DOCTRINA-ri buruz eman nuen lanean, euskal-aditzazko teoria oso bat oraindik eginkizun geneukala nion. Zera esan behar dut, ordea, ordukoaren osagarri: Lan hori ez dugula, noski, bapatean egitekoa.

Izan ere, hizkuntzak millaka urtetan bizirik dirauela, bere oraingo hon-tara irixteko egin duen bidea zuzen eta arteza izan zitekeenik ezin pentsa diteke; euskal-aditza ere ez dugu, noski, noizbait bere osotasun osoan sortu edo asmatutakoa, bizi izateak berak denporaren denporaz mamitua baizik, bere barne-indarrak gaiñera alboan izan dituen hizkuntzen eragiñak eta pen-tsa-giroaren aldakuntzak egun dagoen horretaraino heltzeko indar egiten zio-tela.

Baiño horrek, teoria oso hori eman eziñak, ez du ordea erabateko illun-petan egon eta diraukegunik esan nahi; ene ustez, euskal-aditzaren billaka-bidean suma ditezken zenbait une, tasun eta joerez jardutea egingarri dugu, bere nundik-nora-nolakoaz, zatika bederen, jabeagotzeko lagungarri¹.

Agian, egun aditzarengan ikusi-uste dugun araukortasun-itxura izan dite-ke billaketa hortan oztopo nagusien, aditz-zatiek bere oraingo esanahia be-rezko eta betidaniko dutela pentsatzeko joera bide delarik. Adibidez,

ni nator, hi hator, hura dator,

flesioek, egun

NA- = ni, HA- = hi, eta DA- = hura

1 Euskal-aditzaz dihardudanez, honako hauek noraezeko gertatu zaizkit:

AZKUE, *Morfología Vasca*, eta *Gipuzkera osotua*.

LAFÓN, *Le système du verba basque au XVI^e. siècle*.

LARDIZÁBAL, *Gramática Vascongada*.

Gaiñera, hemen erabiliko ditudan gaiez zehazkien jardun dutenetan beste hauetaz ere baliatu naiz:

SCHUCHARDT, Aita Goenagak *Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco*, izenpurupean gaztelaniara itzulirik "Boletín de la RSVAP" aldizkariaren 1972.gne-ko 2-3 alean azaldutako lana; aipa behar dezadanean itzulpen hontaz baliatuko naiz.

PEDRO DE YRIZAR, *Observaciones sobre la afijación en la lengua vasca*, BRSVAP bere-ko 1972.gneko lehenbiziko alean.

J. OREGI ARANBURU

direla erakusten digute; beti horrela izan dela ontzat ematea besterik da ordea. Azter dezagun astiroxeago gai hori.

NA-tor, Ha-tor, DA-tor, GA-tor-z, ZA-tor-z, DA-tor-z

bezelako flesio-sail baten,

NI/NA-, HI/HA-, GU/GA-, eta ZU/ZA-

elkarren ondoan idaztea aski dugu aditz-zatiok izenordeekin daukaten aria garbi ikusi eta esanahiez jabetzeko;

HURA/DA- eta HAIEK/DA-(z)

direla eta ezin berriz berdin esan, iñolako elkarren antzik ez bait-daukate.

Bestalde, oraiñaldiko flesioak eta oraiñaldiko ez direnak aldera badi-tzagu,

NAtor/Nentor	GAtorz/Gentorz
HAtor/Hentor	ZAtorz/Zentorz
DAtor/ Etor	DAtorz/ Etorz,

zera ikusiko dugu: Flesioen hasierari gagozkiola, NI-HI-GU-ZU aditz-gaidunek bietan batera jokatzten dutela; HURA-HAIEK aditz-gaiei dagozkiene-tan berdin izatera, orainaldiko ez direnek ere D-z hasi beharko lukete.

Gaiñera, eta gero berriro ikusiko dugunez, NORK-dun aditzetan aditz-jabea emateko eran ere NI-HI-GU eta ZU aditz-gaidunek oraiñaldian eta oraiñaldiko ez diranetan bat egiten dute:

nakarZU/nenkarZU	gakarzkiTE/genkarzkiTE
hakarGU/henkarGU	zakarzkiT /zenkarzkiT.

HURA-HAIEK aditz-gaidunek ez ordea; DAKAR-etik

NIK dakarT, HIK dakarK, GUK dakarGU, ZUK dakarZU

sortzen dira, aditz-jabea -T, -K, -GU eta -ZU atzizkien bidez ematen dutela, baiñan EKAR-egandik ateratzen diran

NIK Nekar, HIK Hekar, GUK GENekar, ZUK ZENekar

eta horrelakoetan,

N-, H-, GEN-, eta ZEN-

aurrizkiak ditugu aditz-jabearen adierazle.

Hauek, HURA-HAIEK aditz-gaidunen eta besteen artean funtsezko bitasun bat dagoela erakusten digute garbi, eta behialako baten

DA- = hura

ez baiñan beste zerbait izan zitekeela pentsatzeari erabat bidezko derizkiot.

Esan dudanaren indargarri, beste hauxe:

zuk HURA DAKarzu

bezelako flesio baten delako DA- horrek HURA aditz-gaia adierazten duela zihur esan diteke, baiñan

zuk surtan dizekazu

esakunean, adibidez, iñolako aditz-gairik ez dago², eta hasierako D- ezin, beraz, ez dagoen aditz-gaia emateko bide izan.

HOLMER-ek dionez³ burushaskiz D aurrizkiak aditz-gaia adierazteko eginkizunik ez, baiñan ondoren dijoakiona aditz dela ezagutarazteko hutsa omen dauka; kottoz ere, HURA aditz-gaidunetan ez ezik besteetan ere azaltzeak⁴ horrelako zerbait erakus dezake.

Aditz-flesioak sortu baiño lehen, NOR delakoak aditzean eskuhartu aurretik alegia, D(A)- aurrizkia aditztasunaren ezaugarri soil bat izan zitekeela onar ditekela uste dut beraz⁵. Hau genuke, hots, HURA-HAIEK eta beste aditzgaien arteko bitasuna, euskal-aditzaren lehen-urratsetan funtsezkoetariko bat.

2 Horregaitik,

zuk ZER dizekazu?

galderak ez dauka, IZEKI aditza orain dagoenetan, iñolako erantzunik. Lehen nola zitekeenaz gero jardungo dut.

3 NILS HOLMER, *The iberocaucasic as a linguistic type*, *Studia Linguistica*, 1947-1.

Hemen, eta aurrerantzean beste hizkuntzetakoak aipa ditzadanetan berdin, ez dut euskerak eta beste hizkuntzok iñolako ahaidetasunik daukatenik baieztu nahi; erkatze-hizkuntzalaritzan dihardutenei dagokie, horrelakoetan, bere iritzia ematea.

4 PEDRO DE YRIZAR, *Concordancias morfológicas de la lengua vasca*, "Anuario del Seminario de Filología Vasca, Julio de Urquijo V" (1971).

Holmer-en lan batetik hartzen du.

5 Dena dela, Da hori lehen HURA adierazten zuen eta gero galdu egin zan izenordetzat jotzen du zenbaitek. Nere aburuz, ordea, uste horren aldekoek ez digute beregana gintzaken egiztapiderik eskeintzen.

NOR delakoa aditzean

Harrez gero izenordeak aditzeratu eta sortutakoak bide lirake

NI NAtor	GU GAtorz
HI HAtor	ZU ZAtorz

flesioak; hoi en eragiñez, berez NOR delakoaren esanahirik ez zeukan DA-TOR araukortasun-zurrean

Da-tor → HURA DA-tor

bailitzan ulertu eta osatua litzake egungo

NI	NA-tor	GU	GA-tor-z
HI	HA-tor	ZU	ZA-tor-z
HURA	DA-tor	HAIEK	DA-tor-z

sail osoa.

NORIdunak

NOR-dun flesioak, atzizki batzuen bidez NORItasuna adierazteko gai egiten dira; hona hemen, adibidez, DATOR-egandik ateratzen zaizkigunak:

hura NERI da-tor-kiT	hura GURI da-tor-kiGU
hura HIRI da-tor-kiK (emakumezkoari, -N)	hura ZURI da-tor-kiZU
hura HARI da-tor-kiO	hura HAIEI da-tor-kiE

Ikus ditekenez, bi zatik osatzen dituzte NORI-ren ezaugarriok:

a - NORItasunaren helburu nor den agerrarazten duena,

Neri = -T	GUri = -GU
HIri = -K, -N	ZUri = -ZU
HARI = -O, -A ⁶	HAIEi = -E

b - Flesioa NORIdun dela erakusten duen -(K)I-, flesioan tokiz aldakor dela:

na-tor-KIk	nahiz	naIatork
ga-tor-z-KIzu	»	gaIatorzuz,
e.a.		

6 Bizkaierazko

ekarri deutso eta ekarri deutsa

esanahi berdiñeko ditugu. Beste batzuetan ere (HARI deritzA e. a.) erabili ohi da -A hori.

(K)I-z besteko NORIduntasunaren ezaugarriez gero jardungo dut; **nolanahi** ere esan dezadan, dagoaneko,

N(A)-/-T	G(A)-/-GU
H(A)-/-K, -N	Z(A)-/-ZU
D(A)-/-O	D(A)-(z)/-E

aurrizki eta atzizki saillak baten biltzerik ez dagoela. Izan ere,

N- → -T eta H- → -K, -N

nola gerta zitezkeen ez da iñundik ikusten. Atzizkiarena sail berezi bat dugu beraz, eta lehenbiziko hiruren nondikakoari ez zaio antzik ematen.

ORAIN / ORAIN EZ

ETORRI aditzaren aldiak adibidez begizta baditzaugu, eta HURA aditz-gaidunak idatzi, honako hauek izango ditugu:

dator, datorke, datorren
etorren, baletor, letorke, zetorkeen, betor,

lehenbizikoak orainaldiari eta bigarren lerrokoak orain-ezari dagozkiela; beraz, oraingotasunari eta oraingotasun ezari baizik begiratzeke, bi saillon oiñarrizkoak

Orain: Ni	nator	Orain ez: Ni	nentor
Hi	hator	Hi	hentor
Hura	dator	Hura	etor
Gu	gatorz	Gu	gentorz
Zu	zatorz	Zu	zentorz
Haiek	datorz	Haiek	etorz

lirake⁷, hemen ere HURA-HAIEK aditz-gaidunek besteek ez bezela egiten dutela, batzuek

nator / nENTor

EN tartekatuz eta besteek berriz

dator / etor

⁷ ETORREN, berez, bizkaierazko dugu, beste euskalkietako ZETORREN. Z-rik gabekoak zaharrago direlakotan gramatikalarri guztiak bat datoz; gehienen ustez, Z- hori IZAN aditzeko ZAN-etik besteetara zabaldua dateke. Bizkai-flesioak jatorrizkotzat jotzeak bidezko dirudi beraz.

aldakuntzaren bidez egiten bait-dute bereizkuntza, azkenengoaren hasierako E zenbait aditzetan I delarik. Lehen DATOR-ez niona diot orain ETOR-ez ere, aditz-flesioketa baiño lehenagokoa ematen duela, alegia.

Baiñan E-I aurrizki hori aditzaz kanpo ere ezaguna dugu; izan ere,
nor / Iñor, nEhor; noiz / Iñoiz, nEhoiz; nora / Iñora, nEhora

bezelakoetan IÑOR, adibidez, norbait izan ba da, baiñan ez hemen dagoenik.

Orobat,

IÑOIZ = noizbait bai, baiñan ez orain
IÑORA = norabait, baiñan honera ez ordea
IÑUN = hemen ez, beste nunbait baizik
e.a.

Beraz, E-tor = iñoiz (orain ez) etortzea

izan bide dela pentsa ditekela uste dut. Uste horren indargarri, oraiñaldiko ez diren bukaerako -N gabeek (baletor, letorke, betor) ez dute lehen-aldirik zehatz adierazten; horretarako -N beharrezko dela suma diteke (etorreN, zetorkeeN).

Orain-eza emateko beste erak, EN tartekatzeak alegia, aditzak NOR direnak berebaitaratu ondorengoa dirudi; EN horren jatorriaz iritzi garbirik ez dudanarren, oraingo LEHEN-ekin nolabait lotuta dagokelakotan nago⁸.

ADITZ-JABEARI BURUZKOAK

Orain dagoanetan, euskal-aditzak ba du arestian ikuskatu ditugun adieraz-gaiez beste bat, aditz-jabearena alegia. Hemen ere,

NI, HI, GU, ZU / HURA, HAIEK eta ORAIN / ORAIN EZ

⁸ NORK-dun aditz laguntzaillearengan EN(IN)-en bidezko bereizkuntza.

* na-du / n-IN-du

zateken, noski; gero,

* na-du > nau

laburpena gertatu, eta

nau / nINDu

itxurako azaltzen da. Honek ekarriko zuen, noski, IND hori gero beste aditzetara sartu eta

nator / nINDator; nago / nINDago; nabil / nINDabil

bezelakoetan agertzea (Ikus nere "Aditzeko askargille batzuei buruz", FONTES, 9.gn alea, 1971).

EUSKAL-ADITZAZ ZENBAIT GOGOTEA

bitasun-iturri gertatzen dira; izan ere,

DAKAR-egandik	NIK dakarT	GUK	dakarGU
	HIK dakarK (emakumezkoak -N)	ZUK	dakarZU
	HARK dakar	HAIEK	dakar(T)E,

eta EKAR-egandik berriz

NIK	Nekar	GUK	GENekar
HIK	Hekar	ZUK	ZENekar
HARK	ekar	HAIEK	ekar(T)E

ateratzen dira. Bi saillotan, HARK/HAIEK askartze soil baten bidez bereizten dira:

dakar / dakar(T)E eta ekar / ekar(T)E.

Besteetan, aditz-jabea emateko erak erabat ezberdin ditugu:

-T / N-	-GU / GEN-
-K, -N / H-	-ZU / ZEN- ⁹ .

Lehenbiziko era nundik-norako ditekenez aztertzea geroko utzi, eta galkizkion orain aditz-jabea aurrizki-gisa daramatenei.

Aurrizkiok aditz-gaiari dagozkionekin alderatuz gero,

NA-, HA-, GA-, ZA-
N-, H-, GEN-, ZEN-,

elkarrekin harreman estua dutela argi ikusten da; gainera, bi azkenekoei delkinabidean erabilten den jabetasun-atzizkia

(AndresEN, MartinEN, e.a.)

ote daramateneko itxura hartzen zaie. Hori horrela izatera,

GA- = gu	eta	GEN- (<* GA-EN?) = gure
ZA- = zu	eta	ZEN- = zure

⁹ YRIZAREK ("Observaciones sobre...") bi saillok batera bildu nahi lituzke. Bere ustez, euskal-aditza lehenbizi aurrizkiko izan eta gero atzizkikoitu izanak ekarritakoak lirake atzizkidunak,

GENekarren>GENekarGUN>zekarGUN

billakakuntza bat onartzen duela. Baiñan N- aurrizkia eta -T atzizkia elkarri horrela lotzeko ez da inolako biderik ikusten.

Gainera, adierazpide horrek orainaldikoetan huts egiten digu, DAKARGU eta horrelakoen iturri behar luketen aurrizkidunak ez bait dira ezagutzen.

GENEKARGUN eta ZEKARGUN bezelakoak araukortasun-zurrean ateratako flesio izuntzat jo beharrezko dira beraz.

lirake; SCHUCHARDT, hain zuzen, iritzi hortako dugu.

NEUKAN = «yo lo tenía» ez, baiñan «mi tenido»
itzultzen bait-du¹⁰.

Bestalde, HOLMER-ek dioskunez, abkaz hizkuntzak horrelaxe jokaten du aditz-jabea emateko; areago, bere ustez jokabide hori dateke, zenbait amerikar hizkuntzetan gertatu denari begira, NOR delakoek aditzean esku-hartzearen giltza¹¹.

Hau genuke, beraz, flesioetan aditz-jabea adierazteko eraetatik bat, jabetasun-izenordeen bidezkoa alegia. Hori nola zitekeenaren argigarri ikuska ditzagun esakune hauek:

GU IKUSTEA nahi zuten
GURE Paris ikustea axial-axaleko izan zen.

Lehenbizikoan, GU izenordea IKUSTEAREN aditz-gai dugu, jasaille; bigarrenean berriz, eta jabetasunezko GURE bide dela, IKUSTEAREN egille gertatzen gera.

Azter dezagun orain atzizki-gisako aditz-jabeen nundik-norakoa.

ATZIZKI-ERAKO ADITZ-JABEAK

NIK dakarT	GUK dakarGU
HIK dakarK (-N)	ZUK dakarZU

ditugu, beraz, oraingo azterkizun. Lehen ikusi ditugun NORIdunekin alde-ratu,

datorkiT	dakarT
datorkiK, -N	dakarK, -N
datorkiO	dakar
datorkiGU	dakarGU
datorkiZU	dakarZU
datorkiE	dakar(T)E,

¹⁰ SCHUCHARDT, *Sobre la formación...*, 224 orr.

Oraingo GEREN eta ZEREN-en tarteko R betegarri hutsa delakotan gehienak bat datoz, eta hori gabe geldituko liraken GEEN eta ZEEN aztertzen dihardudan aurrizkiegandik oso hurbil leudeke.

N- eta H-k, berriz, laburpen baten bidezko ematen dute, bizkaieraizko

GUK Gekar (<GENekar) eta ZUK Zekar (<ZENekar)
bezelakoxe.

¹¹ HOLMER, *The ibero-caucasian...*

EUSKAL-ADITZAZ ZENBAIT GOGOTEA

eta lehenbizikoetan NORI eta EKARRI-renetan NORK adierazten dutenak funtsean bat direla azaltzen da.

Bestalde, LAHOVARY-k dionez ¹², Kaukasoko ipar-sortaldeko hizkuntzetan, txetxenez eta, NORK delakoa emateko NORIdunak erabilten omen dira. Euskeraz ere horrelako zerbait gerta ote zitekeen?

NORIdunez niharduela NORItasuna (K)I-n bidez erakusten dutenak bereziki aipatu ditudanarren, bestelakoak ere ba zeudela esan dut. Sortaldeko euskalkiak (Burundakoa barne), eta XVIII gizaldian Gipuzkoako Goierrikoa ere bai ¹³, NORK-dun laguntzaillerenetan RA-z baliatzen dira, honela:

hark hura ekarri du

esakuneari dagozkionak, adibidez,

hark hura	NERI	ekarri	da-RA-u-T (deraut, draut, daut, darot, dereit, e.a.)
»	»	HIRI	» da-RA-u-K, -N
»	»	HARI	» da-RA-u-(k)O
»	»	GURI	» da-RA-u-KU
»	»	ZURI	» da-RA-u-(T)ZU
»	»	HAIEI	» da-RA-u-E

Baiñan, RA delako hori bestetan *eie* azaltzen zaigu,

ibilli / eRAbilli, ikusi / eRAkutsi, atzarri / iRAtzarri,

eta moduko aditzetan noski ¹⁴. Beraz,

(ikusten *da-du >) ikusten da-u = da-kus

berdin direla,

NERI ikusten da-RA-u-T eta NERI *da-RA-kus-T

ere esanahi berdiñekotzat jo ditezkeela ematen du. Ondoren

NERI *da-RA-kus-T (ikusten DIT) → NIK da-rakus-T
(ikusarazten DUT)

bihurtu, eta horra

a) - ERAKUTSI (= ikusarazi) aditz berria sortu, eta

12 N. LAHOVARY, *La diffusion des langues aneiennes du proeihe-orient*, 65 orr.

13 Ikus nere "Otxoa-Arinen DOCTRINA", FONTES, 12.gn alea, 1972.

14 AZKUE-k (*Gipuzkera osotua*, 153 orr.) bi RA hauek eta deklinakeran NORAKOIA adierazten duen atzizkia (mendiRA, etxeRA, e. a.) funtsean bat direla dio.

b) - Lehen NORI adierazten zuen -T orain NORK aditz-jabearen adierazpide billakatu.

Diodanaren indargarri, giputz askok DARABILT-en ordezt ematen duten DABILKIT, hau ere berez NORIdun.

ERION-en flesioetan are argiago ikusiko dugu diodan hau. Idazleetan (Añibarro, Mogel, Zabala, Pouvreau, Gazteluzahar) ikus ditekenez, aditz hau bi eratan erabil ditekete,

NERI odola dariT	NIK odola darioT
HIRI » dariK, -N	HIK » darioK, -N
HARI » dariO	HARK » dario
.....

bi flesio-sailak zillegi direla. Bitasun horren ulerpide honelako zerbait onar ditekete:

a) - Lehenbiziko saillekoak IN aditzaren NORIdun lirake, ERIN aditza osatzen dutela¹⁵.

b) - HARI odola dariO → HARK odola dario
aldakuntza dela bide¹⁶ eta DARIO hori oinarrri hartuta osatutakoak dirateke

NIK darioT, HIK darioK, HARK dario, GUK darioGU,

beste saillekoak, ERION aditza sortzen delarik.

Gaiñera, ERION-en flesioetan askargillea sartzeko era ere esan dudana-ren egiztapide gertatzen da; izan ere,

nik malkoaK dariZKIot
hik » dariZKIok

¹⁵ IN= EMAN dugu ("Refranes y Sentencias", Etxepare, Leizarraga, e. a.). EMAN-ek ba du, ordea, hiztegieta zehatz arkitzen ez cudan esanahi bat:

zauria ez zait sendatu; oraindik ere EMATEN ari da, erderazko "manar, supurar" edo. Beraz,

ERIN = emanarazi

litzake, Azkuek dion "purgar"-ekin bat datorrela.

¹⁶ SCHUCHARDT-ek (*Sobre la formación...*, 279 orr.) JARRAIKI-z diharduela aipatzen ditu horrelako aldakuntzak,

hura HARI darraio → hura HARK darraio

gertatu eta

NIK darraioT, HIK darraioK, ...

sor zitezkeen ustea azaltzen duela.

EUSKAL-ADITZAZ ZENBAIT GOGOTEA

bezelakoetan, askargilleak RIO aditz-guna erdibitu egiten du; aditz-gun hori jatorriz bakun ez baiñan

RI + O

elkar-eranste batetik sortua dela erakusten digu horrek.

Bi sailletakoei, halabeharrez, orain-ezean bide bereziak dagozkie, honela:

NERI	dariT / zeriDan	NIK	darioT / Nerion
HIRI	dariK, -N / zeriKan, -Ñ-	HIK	darioK, -N / Herion
HARI	dariO / zeriOn	HARK	dario / zerion
GURI	dariGU / zeriGUñ	GUK	darioGU / GENerion
ZURI	dariZU / zeriZUñ	ZUK	darioZU / ZENerion
HAIEI	dariE / zeriEn	HAIEK	dario(T)E / zerio(T)En

Berezikuntza hontaz baliatzeko abagunea egokituko zaigu.

ADITZ MURRITZAK

Ba dira, euskeraz, egun NORK-dun gisa erabilten diren eta, aditz-gaiz, HURA itxurakoa baizik ez daramaketen aditz batzu, IZEKI eta IRAKIN adibidez¹⁷. Lardizabalek, bere Gramatikan, honela ematen ditu:

NIK	dizekaT / Nizekan	NIK	dirakiT / Nirakien
HIK	dizekaK, -N / Hizekan	HIK	dirakiK, -N / Hirakien
HARK	dizeka / zizekan	HARK	diraki / zirakien
.....

Hala ere, bere KI eta RA direla, NORIdun itxura osoa daukate. Bestalde, Larramendik, Mendibururi egindako eskutitzean,

HARI (zure biotzaRI) dizeka, eta
HARI (barrunbeaRI) diraki.

darabilzki; Schuchardt-ek ere

(ba) dizeka etxeaRI eta
(ba) dizekaT NIRI

¹⁷ Hemen ere,

Nik ZER dizekat ? (edo dirakit)

bezelako galderak erantzunik gabeko ditugu, flesio hoiak ez bait-dute inolako aditz-gairik.

J. OREGI ARANBURU

ematen dizkigu¹⁸, eta Lardizabalek berak («Testamentu zarreco eta berrico condaira», 512 orr.)

HAIEI (gure biotzaI) etzizekaTEn

dio¹⁹. Areago: Gramatikan bertan,

NIK NIzekan eta ZUK ZEÑIzekan

NORK-dun flesioen ondoan, arau berdiñez legokioken

GUK GENIzekan ez, baiñan zizekaGUN

jartzen du²⁰.

Beraz, aditzok lehen

NERI dizekaT / zizekaDan

NERI dirakiT / zirakiDan

HIRI dizekaK, -N / zizekaKan, -N-

HIRI dirakiK, -N / zirakiKan, -Ñ-

HARI dizeka / zizekan

HARI diraki / zirakien

.....

izan, eta ERION-enetan ikusi dugun bezelaxe

HARI dizeka → HARK dizeka

HARI diraki → HARK diraki

esanahiz aldatuta hartua dute, noski, oraingo bere NORK-dun itxura. Aditzok ere, egun NORK dena iñoiz NORI-ren bidez eman zitekeenaren egiztagarri ditugu beraz.

18 SCHUCHARDT *Sobre la formación...*, 280 orr.

19 Azkuek zuzenketa ustel bat egiten dio
gure biotzak

behar lukela dionean. Orain erabilten den arauz horrela da izan baiñan, ikusi dugunez, Lardizabalen hori erabil-era zaharrago baten lekuko dugu.

20 YRIZAR-ek (*Observaciones sobre la sufijación...*, 142 orr.), GENIZEKAN aditza aurrikikoi zatekeneko lehen-aldiko jatortzat jotzen du, eta ZIZEKAGUN berriz aditza atzizkikoi bihurtu ondorengotzat. Bigarren hori orainaldiko

guRI dizekaGU

NORIdunari lehen-aldian

guRI zizekaGUN

xuxen-xuxen dariona denez ez bide da jabetu.

EUSKAL-ADITZAZ ZENBAIT GOGOTEA

ERAGON, INOTSI eta ERAUNSI-ri bagagozkie²¹, Azkuek eta Larramendik jartzen dituzten

euriaRI daragoiO
 euriaRI dinoTSA
 euriari daraunSA

flesioetan ere ez dago inñolako aditz-jaberik, ez aditz-gai litzaken ZER-ik ere;

DA- = hura

gabekoak ditugu beraz, NORI-dun soil-soillak.

Lardizabalek Gramatikan hauek ere nahastekatu egiten ditu. ERAGON-entzat,

HARI daragoiO → HARK daragoio

gertatu ondorengo

NIK daragoioT / Neragoion, HIK daragoioK / Heragoion,

bakarrrik aldatzen ditu, baiñan INOTSI eta ERAUNSI direlakoentzat, orainaldirako

NERI diñotsaT	NERI darauntsaT
HIRI diñotsaK, -N	HIRI darauntsaK, -N
HARI diñotsA	HARI darauntsA
.....

NORIdunen aldean, lehen-aldian bi sailletakoak nahastu, eta

NERI biñotsaDan (<ba iñotsaDan)
 GURI biñotsaGUn (<ba iñotsaGUn)²²

21 ERAGON-ek NORIduntasunaren —RA— darakus.

INOTSI-rengan berriz, orain bizkaierazko

neRI deuSt	neRI dakarSt
guRI deuSku	guRI dakarSku
haRI deuTSo	haRI dakarTSo

eta horrelako NORIdunetan ageri dan (T)S ikus diteke. Etxepare, Leizarraga eta Axularengan era ba daude, noski,

neRI dioStazu, hiRI dioSnat, haRI dioTSo, guRI dioSku

eta horrelako NORIdunak, delako (T)S hori inoiz euskalki guztietan erabilli izan denaren lekuko.

22 Bizkaierari dagokionez, hasierako Z-rik gabekoak ditugu

IÑOTSADAN eta IÑOTSAGUN

hoiek.

J. OREGI ARANBURU

NORIdunez gaiñera NORK-dun egin ondorengo

NIK Niñotsan	NIK Nerauntsan
HIK Hiñotsan	HIK Herauntsan
.....

ere jartzen bait-dizkigu.

ERAUSI ere hoietarikoa dugu seguraski, Lardizabalek

NIK dirauskiT / Nerauskian

erakoak baizik ematen ez dituenarren Larramendik

HARI (mingañaRI) darauskiO

bait-dio lehen aipatu dudan Mendiburuntzako eskutitzean.

ERITZI ere RA-dun zela baieztatu ditekete. Egun, bere bi esanahiak direla eta (izenaz deitu, zerbaiti buruzko iritzia ukan), era askotako flesioak erabilten dira. Noiz nola behar lukenezko lan bereizi bat egingarri litzake.

IRUDI, IRAUN eta JARDUN-entzat ere, idazleetan

NIK dirudiT / Nirudien
NIK dirauT / Nirauen
NIK diharduT / Niharduen

motakoak baizik ez ditugu arkitzen; bere murriztasunak berak iñoiz bestelako izanak direla erakusten duela uste dudanarren, oraingora aspaldi aldatuak ditugu noski, nolana ere.

OSAGARRI GISA

Ikusi dugunez,

HARI → HARK

aldakuntza zateken NORK atzizkien bidez ematen duten flesioen sorburu. Aldakuntza horri egun harrigarri baderizkiokegu ere, oraindik orain antzerakoak gertatzen ari direnaz kontura gaitezke, ohartzuz gero.

EUTSI aditza, adibidez, idazleetan («Refranes y Sentencias», Garibai, Agirre, e.a.) honela agertzen zaigu:

ni HARI nauTSO (eusten NATZAIO, beraz)
hi HARI hauTSO (eusten HATZAIO)
hura HARI dauTSO (eusten ZAIO)

.....

EUSKAL-ADITZAZ ZENBAIT GOGOTEA

NORK gabeko NORIdun genuen beraz EUTSI delako hori; Lardizabalek, ordea,

NIK hari dautsaT (eusten DIOT)
HIK hari dautsaK (eusten DIOK)
HARK hari dautsO (eusten DIO)
.....

dakarzki, EUTSI NORK-dun egiñik²³. Hala ere, flesio zaharrek oraindik iraun diraute, ez dira erabat galdu; lekuko, Barandiaranek berak Ataunen jasotako ipuin baten

HIK hari deutsoK

idazten duenarren, orrialde berean Azkoitiako

hi HARI hauTSO

dakarren NORK gabeko NORIduna²⁴.

Eta EUTSI-z dihardudanez gero, ezin E(D)UKI aipatzeke utzi. Izan ere, bukaerako bere KI dela eta, *EDUN-en NORIdun itxura osoa ematen zaio; bizkaierazko.

nik daukOt, hik daukOk,

eta uste horren indargarri ditugu, daramaten O hori lehen HARI-dun izanetik datorkiekela. Gaiñera, orain darabilzkgun

nik daukat, hik daukak, hark dauka,

saillekoei, aditz bakun izatera, UKA aditz-guna legokieke; askarretan, ordea,

nik HAIEK dauZkat, hik HAIEK dauZkak,
hark HAIEK dauZka,

23 Hemen,

NIK sokari dautsaT

bati legokioken

nik sokari ZER dautsaT?

modukoei erantzunik ezin eman izatea esanahiaren aldaketari dariola garbi ageri da; IZEKI, IRAKIN, ERAGON eta beste aditz murrizetan gertatzen zen bezelaxe, aditzon NORK-duntasuna izun denaren erakusgarri.

24 J. M. BARANDIARÁN, *Obras completas, II*, 254 orr.

J. OREGI ARANBURU

aditz-gun litzakenero hori erdibiturik aurkitzen dugu, berez

UKA ez, baiñan U + KA

zenaren lekuko²⁵.

Orain NORK-en bidez adierazten duguna iñoiz NORI-dunez eman izanari ere bitxikeria deritzaiokegu, baiñan hemen ere lehengo era zaharrak irau dirauela esan behar. Larramendik, esaterako, oraingo giputzek

(JaunaK) nahi dezala

lioketena

(JaunaRI) nahi dakiOla

idazten du.

Horren antzera, eta NORK gabeko aditzetan bada ere, Bergaran, bertako euskera hobekien darabiltenei

aita asarretu da

esatearen orde

aitaRI asarretu JAKO (ZAIIO)

entzun dakieke,

aitaRI dizekA

eta horrelakoetan bezelaxe²⁶.

25 *EDUN,E(D)UKI, EUTSI elkarren ondoan jarrita, bigarrena eta hirugarrena *EDUN-en NORIdun diratekela dirudi, bata KI-n bidezko eta bestea (T)S-z osatzen direnetako.

Horrek, horrela izatera, beste hau lekarke: Aditzak, berez, ez zirela ez NORK-dun ez NORK gabeko, eta

EUTSI NORK gabeko eta
E(D)UKI NORK-dun

diren arauera, bere duntasuna eta gabetasuna erabil-eratik letorkiekela. SCHUCHARDT-ek (*Sobre la formación...*, 276 orr.) horrela uste du.

EKARRI aditza, adibidez, noraezean NORK-dun delakotzat jotzen dugu egun, bere esanahiari dariola; hala ere,

egurra menditik ekarten DA

diogunean NORK gabeko gisa darabilgu. Hori, orain, ekarlea nor den zehazki adierazi behar ez dugunean gertatzen da; berdintsu gerta zitekeen, beraz, NORK delakoa fle-sioetan sartzen hasi baiño lehen.

26 Etxean maiz entzuna dut, erderaz ere,

se LE enfadó AL padre, y...

behialako euskal esan-eraren oihartzun.

Bukatzeko, hona hemen, esandakoen laburpen, euskal-aditzaren azterketa honi nere ustez darizkion ondorioak:

A - Flesioketa sortu baiño lehenago ba zan, antza, oraiña eta orain-eza

DA- / E-

bereizten zituen aditz moduko bat.

B - NOR delakoa (aditz-gaia) sartzean, orain-eza EN tartekatuz adierazten da. NOR-dun aditzak lehen zeuden

Da-dun eta E-dunak

berebaitaratu eta HURA aditz-gaia emateko darabilzkianarren, sistema berrian ere HURA aditz-gaidunek besteegandik bereiz diraute.

D - Aditz-jabea (NORK delakoa) adierazteko bi era erabili bide dira:

- Jabetasunezko izenordeen bidezko aurrizki-gisakoa, eta
- NORI-dunen bidezko atzizkikoa.

Hasieran nionez, euskal-aditza ez dugu, noski, billakakuntza artez batek ekarria. Zenbait aldiz, eta halabeharrez, hartutako bideak utzi eta berriei ekin beharko zitzairen, lehengoek eta ondorengoek elkar estaltzen eta nahastuten zutela.

Nik, sumatu-uste ditudan zatixka eta zedarri-ondarrak euskeralariei aurrean jarri nahi izan dizkiet, nere hontan, agian, baliagarri dakioken zerbait arki dezaketelakotan.

J. OREGI ARANBURU
Bergaran, 1973-Abendua.

NORIdunak erabilteko joerari darraion beste hau ere jasoa dut Bergaran:

Jeikitzerakoan mariaiu JATAN (mareatu ZITZ Aidan, beraz, NINTZAN-en ordezt), eta berriz etzan in bear izan neban.

LAHOVARY-k dioskunez (*La diffusion...*, 66 orr.), Kaukasoko hizkuntzetan nahitako eta nahitzekeko gertakariei dagozkien aditzak bereizi, eta azkeneko hauei beti NORI-dunak omen dagozkie; IZEKI, IRAKIN, ASARRETU, eta batez ere azkeneko MAREATU ikusita, euskeraz ere horrelako zerbait izan ote zenezkoa aztergai interesgarria litzake.

ERASKIÑA

Lan hau bukatu ondoren, NORI-dunez diodanaren egiztagarri gertatzen diren batzu jasoak ditut, han-hemen.

Soraluzen eta Bergaran, norbait burutik nahastu egin dela adierazteko,

ORRI BURUTIK E(G)IN JAKO (zaio);

horren berdintsu, FELIPE YURRAMENDI jaunak diostanez bere emazteak (Yurramendi Andrea Leizarra da) esan ohi duen

BURUTIK EGIN AL ZAITZU?

*EZAN-en ordez *EDIN-en NORI-dunak darabilzkite,

Aita Villasantek, «JAINKOARI HALA NAI (sic) DAKIOLA!»
(II SEMANA INTERNACIONAL DE ANTROPOLOGIA VASCA,
169. gn orrialdea), eta

Basarrik, «JAUNARI NAI DAKIOLA GIZON AUEK GUZTIAK
DATORREN UDAZKENEAN OSASUN BETEAN ARKITZEA...»
(GOIZ ARGÍ, 184. gn alea)

ENTENDITU aditzarekingoa, JESUS EGILEOR bertsolariak 1974. gneko Santa Marina egunean «nik ez dut entenditzen» emateko Bergaran jalki zigun

NERI ETZAIT ENTENDITZEN;

orobat, Segurako JOSEMARI TELLERIA-k SEGUNDO ARANBURU bere osaba mutiloarrari entzunda esan zidan

NERI ETZAT ENTENDITZEN;

DON JOSE ALDASORO apaiz ataundarrak esakune hori bera bere gura-soek arrunt darabiltela zion. YURRAMENDI jaunak ere, Usurbilgo bere jaiotetxean

NERI ORTAN ETZAIT ENTENDITZEN

beti entzun izan duela diost.

Ez dakit, beraz NORI-dunez horrela baliatze hori hilda dagoela esan ote diteken; hillik baletza ere ehorzteke dirau behintzat.

SUMMARY

Some considerations about the basque verb.

It is evident that the process which has led to the present structure of the basque verb has not been able to develop in an entirely straightforward and uninterrupted way.

Without doubt, at different stages the language has tried out various possibilities which have given rise to confusing crosscurrents. The present work tries to point out some aspects of the basque conjugation which could serve as points of reference, using, the study of the internal structure of the verb and, particularly, consideration of the defective verbs, which, in the opinion of many authors (Schuchardt, Azkue, Lafon, Yrizar) offer evidence of earlier stages.

This brings us to the following conclusions:

- A - The existence of a pre-flexional stage characterised by the prefixes DA- and E- for the present and the not-present, respectively:

DA-tor and Etor

- B - At the point when the patient was introduced, a system emerged which incorporated pre-existing forms as flexions of the third person patient:

NA-tor, HA-tor, dator,

however, these flexions kept one peculiarity which can be seen in the manner of expressing the not-present,

nator / nENTor, but dator / Etor,

and the way the agent is incorporated.

- D - The agent is incorporated in two ways:

- a) - By means of prefixes related to the possessive forms of the personal pronouns,

Nekar, Hekar, GENekar, ZENekar,

and

- b) - By using the dative in form of suffix:

dakarT, dakarK, dakarGU, dakarZU

